



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko azaroaren 8a

128. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena (13. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena. Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (15. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren politika orokorrari buruzkoa, enpresen finantzaketari abalen bidez laguntzeari dagokionez, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Baterako Hezkuntzako edota Berdintasunean Hezteko plan bat presta dezan, Hezkuntza Departamentuak sustatuta eta Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuaren laguntza eta aholkularitzarekin. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu dute (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da urte anitzeko finantzaketa eman dezan Erregeren Or baitzetako Arma Olako jauregia zaharberritzeko proiekturako. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da erlijioaren irakaskuntza ken dezan irakaskuntza ez-unibertsitarioetako curriculumetik. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Parlamentuak onetsitako zenbait foru lege bete ditzan. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du (23. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Nafarroako Gobernuak jarraitzea gurutze erramuduna mantentzen Nafarroako Jauregiaren fatxadako Nafarroako armarrarian, eta eskatzen du Nafarroan dauden ikur frankisten katalogo bat presta dadin, haiek kentze aldera. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (24. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Europar Batasuneko txosten baten arabera osasunerako zentimoa legearen aurkakoa izan daitekeela dioen berriari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (26. or.).
- Galdera, bularreko minbiziaren baheketa-programaren xede den populazio-taldean adinagatik oraindik sartzen ez diren emakumeengan gaixotasun hori areagotzeari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (27. or.).
- Galdera, San José zentroko igerilekuari buruzkoa, Xabier Lasa Gorraiz jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Gizarte Ongizateko Kontseiluak Nafarroako Kutxa Fundaziorako izendaturiko ordezkariari buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak Parlamentua eta hari dagokion lana eta erreforma instituzional baten beharra direla-eta duen iritziari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (29. or.).
- Galdera, gizarte entitateei zuzendutako diru-laguntzen deialdiei buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (29. or.).
- Galdera, Ega ibaian hilik agerturiko karramarroei buruzkoa, M.^a del Carmen Ochoa Canela andreak egina (30. or.).
- Galdera, 2013rako defizit-helburuari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (31. or.).
- Galdera, diru-sarreraren betetze-egoerari eta abenduaren 31rako ekitaldi-itxierako aurreikuspenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (31. or.).
- Galdera, traumatologiako itxaronzerrendari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (32. or.).
- Galdera, entitate publikoetako izaera pertsonaleko fitxategiei buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (32. or.).
- Galdera, “osasunerako zentimoa” aplikatzearen ondorioz Foru Ogasunak lortutako diru-bilketari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (33. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Lantaldea, aztertzekoa zein den gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeen ekimen eta proposamen ezberdinak ere, gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera. Txostena onetsia (34. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2013ko urriaren 30ean hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik, **hamabost egun baliouduneko epea hasiko da eta 2013ko abenduaren 4an, eguerdiko hamabietan, bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalgo dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen

ZIOEN AZALPENEA

Foru lege honen abiapuntua da Nafarroako Foru Komunitatean kultura eta kultur sektorea garatzen laguntzea eta suspertzea, mezenasgoaren kultura sustatuz. Kultur ondasun eta zerbitzuak, beren izaera dela eta, ez dira besteak bezalako salgai edo kontsumo ondasuntzat hartu behar. Horregatik, gure inguruko herrialdeetako Konstituzio gehienetan jaso da kulturarako eskubidea. Espainiako Konstituzioaren 44.1 artikulua kulturarako eskubidea jasotzen du herritar guztiontzat, bai eta botere publikoen eginkizuna dela hura sustatu eta babestea. Printzipio nagusi horretatik abiatuta, foru legeak sustapenerako zenbait neurri jarri nahi ditu abian, bi xede nagusirekin: kulturaren finantzaketa soilik laguntza publikoen menpe uzten duen eredia gainditzea, eta esparru berri bat ezartzea, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren estratergiarako mesedegarria izanen dena.

Urtetan, nagusiki sektore publikoak hartu du bere gain kultur sustapenaren eginkizuna, administrazioen aurrekontuez eta hainbat ekimenen bitartez. Halere, ezinbestekoa da gizarte zibilaren partaidetza bultzatzea kulturaren sustapenean eta finantzaketan; eta, horretarako, beharrezkoa da arau mailako neurri batzuk hartzea mezenasgoa sustatu eta laguntzeko.

Kultur adierazpenen aniztasuna babestu eta sustatzeari buruzko Konbentzioak, Unescok 2005ean onartu eta Espainiak 2006an berretsitakoak, bere printzipioen artean jaso du garapenaren alderdi ekonomikoak eta kulturalak elkarren osagarri direla, eta garapenak jasagarria behar duela. Lehenbiziko printzipioarekin bat, garapenaren eragile nagusietako bat da kultura, garapenaren alderdi kulturalak ekonomikoak bezain inpor-

tanteak dira, eta banakakoek nahiz herriek horietan parte hartzeko eta haietaz gozatzeko oinarriko eskubidea dute. Garapen jasangarriaren printzipioarekin bat, berriz, kultur aniztasuna aberastasun handia da pertsonentzat eta gizarteentzat. Kultur aniztasuna babestu, sustatu eta mantentzea funtsezko baldintzak dira garapena jasangarria izan dadin, egungo eta etorkizuneko belaunaldien onerako.

Konbentzio horretan aitortzen da, halaber, zein garrantzi handikoa den artisten ekarpena, sorkuntzan parte hartzen duten pertsona guztiena, bai eta horiek sostengatzen dituzten kultur komunitateena eta erakundeena ere, eta azpimarratzen da, batetik, horiek oinarriko papera betetzen dutela, kultur adierazpenen aniztasuna elikatzen baitute, eta, bestetik, gizarte zibilaren zeregina funtsezkoa dela kultur adierazpenen aniztasuna babesten eta sustatzen.

Ildo horretan, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 88. artikulua xedatzen duenez, "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Nafarroako kultur ondarearen babes, kontserbazio, lehengoratzeko, ugaritze, ikerketa, dokumentazio eta zabalkundera zuzenduriko mezenasgoko jarduketak bultzatuko ditu, eta baita entitate eta pertsona pribatuek egin dezaketen finantzaketa ere"; jarduketa horiek, gainera, onura fiskalak eta bestelakoak izanen dituzte, arlo horretan Nafarroako arauak ezarritakoaren arabera.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak emandako eskumenez baliatuz, Nafarroako Foru Komunitatea kulturaren finantzaketa pribatua zerga pizgarrien bidez bultzatzeko neurriak ezarritako joan da. Arau hauetan jaso dira: 10/1996 Foru Legea, uztailaren 2koa, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duena; Sozietateen gaineko Zergaren Testu Bategina arautzen duen ekainaren 13ko 153/1986 Legegintzako Foru Dekretua; Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Testu Bategina arautzen duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua; Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea; Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea; eta Tributuak buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra.

Egungo araudian, kultur mezenasgoa beste kontzeptu zabalago baten barruan sartuta ageri da: lankidetzak ekintzak interes orokorreko jardueretan; alabaina, lankidetzarako egungo bideak eta

gaur dauzkagun zerga pizgarriak ez dira aski modu egokian sustatzeko sektore pribatuaren partaidetza kulturaren finantzaketan. Sektore pribatuak kultur jardueretan parte hartzeko bide bat baino gehiago daude, baina lege xedapen honen aplikazio-esparru objektiboa mezenasgoa da soilik, hau da, dirua, ondasunak edo eskubideak doan ematea. Izan ere, hemen gakoa da erantzukizun sozialaren printzipioa, kulturaren balio sozialen bitartez –oinarri sinbolikoak, estetikoak, espiritualak, historikoak eta egiazkotasunarenak– adierazita, mezenasa bultzatzen baitu ekintzara, bere motibazioa da, hitz batez.

Zenbait azterlanetan nabarmendu egin da Administrazio publikoaren eginkizunen eta inbertsio pribatuaren artean sortzen den indar-korrelazioa, halako moduan non esku-hartze publikoa, zerga arloko neurrietan islatua, ezinbestekoa baita mezenasgoaren bidez kultur jardueretara bideratzen diren baliabideak handitzea lortzeko. Hortaz, foru lege honen helburua da tresna juridiko berriak sortzea, zeharkako laguntza publikoak baliatuz bide bat ezartzeko ekimen pribatutik kulturgintzara bideratutako diru-ekarpenen gaineko zerga kenkari eta murrizketak handitzeko, horrelako ekarpenetarako pizgarria izanen den diskriminazio positiboa ezarri.

Foru lege honen asmoa da, halaber, funtsak bereganatzeko tresna berritzaileak jartzea onuradunen esku. Sektorean zabaldua dagoen iritzia araber, jendaurrean zenbait eragile garrantzitsuk adierazi dutenez, kultur antolakunde- etako egitura operatibo gehienek ez dute modu egokian garatu finantzaketa pribatua erakartzeko zereginen nolabaiteko profesionalizazioa. Gabezia horri aurre egiteko arautu dira, batetik, kontu erabilzinetarako ekarpenak, zeinen errentagarritasunari esker bermatzen baita kultur proiektuen finantzaketa denboran, eta, bestetik, mikro-mezenasgoa errazteko aplikazio informatikoak.

Foru legeak honako egitura du: hiru kapitulutan bildutako hogeitun artikulua, sei xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen.

Foru lege proiektuaren I. kapituluaren zedarrizten da, modu zabalean, zein diren interes sozialaren deklarazioa jaso dezaketen kultur proiektuak eta jarduerak: zinematografiarekin, ikus-entzunezko arteekin, arte eszenikoekin eta musikarekin lotutakoak, liburuarekin eta irakurketarekin zerikusia dutenak, eta Nafarroako kultur ondarearen sustapena. Kapitulu horrek zehazten du, halaber, zein pertsona eta entitate izan daitezkeen kultur mezenasgoaren onuradun. Horixe da, izan ere, foru

lege proiektuaren berrikuntza nabarmenetako bat, kultur mezenasgoaren onuradun izan daitezkeen pertsonen eta entitateen esparrua asko zabaltzen baita, oraingo egoerarekin alderatzen badugu, eta bertan sartzen dira administrazio publikoak eta jarduera artistikoren batean aritzen diren pertsona fisikoak. Azken kolektibo horri dagokionez (artista diren pertsona fisikoak), foru lege proiektuak, batetik, aintzat hartu beharreko jarduerak adierazten ditu eta, bestetik, esparrua mugatzen du, 200.000 eurotik beherako negozio bolumena duten pertsonak baizik ez baititu hartzen. Horrez gain, beste murrizketa batzuk ere sartu dira, agerikoa baita zailtasunak egon daitezkeela egiaztapenak egiteko eta simulaziorik gerta ez dadin familietan.

II. kapituluaren interes sozialaren deklarazioa egiteko prozeduraren oinarritzko ildoak arautzen ditu, eta zehatz-mehatz ezartzen deklarazio hori egiteko kontuan hartu behar diren irizpideak. Ezartzen da, halaber, Nafarroako Kultura Kontseiluak interes sozialaren deklaraziorako eskaeraren gaineko ebaluazio loteslea eginen duela irizpide horietan oinarriturik, eta Kontseiluak berak deklarazioa emateko edo ukatzeko proposamena igorriko diola zuzendari nagusi eskudunari, proposamen horrekin bat ebazpena eman dezan.

III. kapituluaren pertsona fisikoak eta juridikoak ematen zaizkien zerga pizgarriak arautzen ditu proiektuak. Horri buruz esan behar da ahalegin handia egin dela pizgarriak handitzeko, mezenasgoaren eta kulturaren arloan egun daudenekin alderatuta.

Pertsona fisikoek eskubidea izanen dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuantan kenketa egiteko, dohaintzen, erabilera maileguen eta, lankidetzaren hitzarmenen ondorioz, ordaindutako kopuruen eta egindako gastuen balorazioko lehen 300 euroen erdia adinakoa. 300 eurotik gorako zenbatekoek 100eko 40ko kenkaria egiteko eskubidea izanen dute.

Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibok bi zerga onura izanen dituzte. Batetik, dohaintzen, erabilera maileguen eta, lankidetzaren hitzarmenen ondorioz, ordaindutako kopuruen eta egindako gastuen balorazioko zenbatekoak kontusail kengarria izanen dira. Eta horrez gain, zenbateko horiengatik kuota likidoan kenkaria egiteko eskubidea izanen dute, lehen 300 euroen 100eko 30ekoa. 300 eurotik gorako zenbatekoek eskubidea izanen dute 100eko 20ko kenkaria egiteko kuota likidoan.

Dohaintzak eta lankidetzaren hitzarmenen ondorioz emandako laguntzak diruzkoak, gauzakkoak edo doako zerbitzu emateak izan daitezke.

Bestetik, proiektuak ezartzen du bertan arautzen diren zerga pizgarriak ez direla bateragarriak 10/1996 Foru Legean jasotakoekin. Bateriaezintasun hori bera izanen den ekainaren 13ko 153/1986 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren xedapenei buruzko Testu Bateginaren 22.B) artikuluan aurreikusitako kenkariak.

Zerga onura horiek jasotzeko, pertsona edo entitate onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Dohaintzak, erabilera maileguak edo lankidetzaren hitzarmena egiaz egin direla eta interes sozialaren deklarazioa jaso duten proiektu edo jardueretarako egiaz erabili direla frogatzea, kasuan kasuko ziurtagirien bidez.

b) Luzatutako ziurtagirien edukia berri ematea zerga administrazioari, zergen arloko araudietan ezarritako ereduetan eta epeetan.

Xedapen gehigarrietatik aipagarrienak laugarrena, bosgarrena eta seigarrena dira.

Laugarren xedapen gehigarrian arautzen da zer finantza eta zerga araubide izanen duten finantza produktu erabilezin jakin batzuei kultur mezenasgoari laguntzeko egiten zaizkien ekarpenek. Horrela, kreditu entitateek kudeatutako finantza produktu jakin batzuetan pertsonak eta entitateek diru ekarpenak egitea bultzatzen da, denbora mugatu baterako, ekarpen horien finantza mozkinen bidez kultur jarduerak eta proiektuak finantzatzeko aldera.

Bosgarren xedapen gehigarriak xedatzen du Nafarroako Gobernuak aplikazio informatiko bat garatuko duela, foru lege honi jarraikiz interes sozialaren deklarazioa jaso duten jarduerak eta proiektuak betetzen dituzten pertsonak eta entitateei dohaintzak egin ahal izateko bide elektronikoa erabiliz. Horren xedea da Nafarroako Gobernuaren web orriaren bidez edozein pertsonak dohaintzak egiteko aukera izatea pertsona edo entitate onuradunen kontu korrontean.

Seigarren xedapen gehigarriaren bidez, Nafarroako Gobernuari ezartzen zaio Nafarroako Parlamentuari foru lege honen emaitzen berri emateko betebeharra: interes sozialaren deklarazioa jaso duten proiektuak eta jarduerak, pertsona eta entitate onuradunak, erabilitako mezenasgo mota desberdinen balorazioa eta aplikatutako zerga onurak.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko zerga araudiaren menpeko pertsona fisikoek edo juridikoek egindako kultur mezenasgoari aplikatu ahal zaizkion zerga pizgarriak arautzea.

2. artikulua. Kultur mezenasgoaren kontzeptua.

1. Foru lege honen ondorioetarako, kultur mezenasgoa da sektore pribatuaren partaidetza Nafarroako Gobernuan kultur arloko eskumena duen departamentuaren aldetik interes sozialaren deklarazioa jaso duten proiektu edo jardueretan.

2. Kultur proiektu edo jardueratzat hartzen dira honakoekin zerikusia dutenak:

- a) Zinematografia, ikus-entzunezko arteak eta multimedia arteak.
- b) Arte eszenikoak eta musika.
- c) Ikusizko arteak: arte plastikoak edo arte ederrak, argazkilaritza eta diseinua.
- d) Artearen arloko beste edozein jarduera.
- e) Liburua eta irakurketa.
- f) Nafarroako kultur ondarearen gaineko ikerketa, dokumentazioa, kontserbazioa, zaharberritzea, berreskuratzea, haren zabalkundea eta sustapena egitea.

3. artikulua. Kultur mezenasgoaren modalitateak.

Foru lege honetan xedatutakoaren arabera, kultur mezenasgoa modalitate hauetan gauzatu daiteke:

- a) Dohaintzak.
- b) Erabilera maileguak edo komodatua.
- c) Lankidetzak hitzarmenak.

4. artikulua. Kultur mezenasgoaren onuradun diren pertsona eta entitateak.

Foru lege honen ondorioetarako, honakoak dira pertsona eta entitate onuradunak:

- a) Helbide fiskala Nafarroan duten irabazi-asmorik gabeko entitateak.
- b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, bai eta haren menpeko erakunde autonomoak eta fundazio publikoak ere.

Era berean, Nafarroako toki entitateak eta haien menpeko erakunde autonomoak eta fundazio publikoak.

c) Nafarroako Foru Komunitatean ezarritako unibertsitateak.

d) Beste autonomia erkidego batzuetan eta atzerrian egoitza duten Nafarroako txokoak, zentroak eta etxeak, bai eta entitate horien federazioak ere.

e) Eliza Katolikoa eta Espainiako Estatuarekin lankidetzak akordioak izenpetuta dituzten elizak, sinesteak eta komunitate erlijiosoak.

f) Helbide fiskala Nafarroan izan eta jarduera artistikoak gauzatu ohi dituzten pertsona fisikoak, baldin eta haien negozio zifraren zenbateko garbia ez bada izan 200.000 eurotik gorakoa aurreko urtean.

Ondorio horietarako, honakoak dira jarduera artistikoak, Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak eta jarraibidea onesten dituen maiztaren 28ko 7/1996 Foru Legean aurreikusitakoarekin bat:

– Bigarren atalean (lanbide jarduerak), 86. elkartean, 861. eta 862. taldeetan sartutakoak.

– Hirugarren atalean (jarduera artistikoak), 01., 02. eta 03. elkarrean.

Foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera artistikoak betetzen dituzten pertsona fisikoak ez dira onuradunak izanen kasuko mezenasgo modalitateak ezkontideak, izatezko bikotekide egonkorak, hirugarren gradu arteko aurreko, ondorengo nahiz alboko ahaideek edo pertsona fisiko horrekin batera errenta esleipeneko araubideko entitate bateko kide direnek haien zatiak badira.

Era berean, jarduera artistikoak betetzen dituzten pertsona fisikoak ez dira onuradun izanen sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek egindako mezenasgo modalitateen kasuan, jarduera artistikoa betetzen duenak eta dohaintza- edo ekarpen-emailea den entitateak pertsona lotuen izaera badute sozietateen gaineko zergaren araudiarekin bat.

II. KAPITULUA

Interes sozialaren deklarazioa

5. artikulua. Interes sozialekotasun hartzeari.

Honako kultur proiektu edo jarduera hauek interes sozialekotasun hartuko dira, berariazko deklarazioa egin gabe:

1. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak eta haren menpeko erakunde autonomoek eta fundazio publikoek antolatutakoak.

2. Departamentu horrek berak hitzarmen edo diru-laguntza bidez sustatu edo laguntzen dituenak, 4. artikuluan aurreikusitako pertsona edo entitate onuradunek eginak badira.

6. artikulua. Interes sozialekotzat deklaratzeko onuradunek eskatuta.

1. Pertsona eta entitate onuradunek beraien kultur proiektu edo jardueren interes soziala deklaratzeko eskatu ahal izanen dute ezartzen den prozedurari jarraikiz.

2. Nafarroako Kultur Kontseiluak ebaluatuko ditu interes sozialeko deklaraziorako eskaerak, irizpide hauek kontuan hartuz:

a) Kultur jardueren garrantzia eta eragin soziala.

b) Jarduerak kultur ondarearen ikerketan, kontserbazioan eta zabalkundean duten eragina.

c) Sorkuntza artistikoaren sustapenean eta sortzaileentzako laguntzan duen eragina.

d) Arte eta kultura arloko prestakuntzari dagokionez duen balioa eta interesa.

e) Herritarren parte-hartzea eta ikusleriak sortzea sustatzeko duen balioa eta interesa.

f) Nafarroako Foru Komunitateko arte eta kultur balioak kanpoan sustatzeari dagokionez duen balioa eta interesa.

g) Arteen zabalkundean laguntzen duten kultur inbertsioak egiteari dagokionez duen balioa eta interesa.

h) Kultur esparruan ikerketarako jarrera izatea, arte lengoia berriak jorratzea eta izaera berriak.

i) Nafarroako Foru Komunitateko kulturaren kontserbazioarekin, sustapenarekin eta garapenarekin zerikusia duen beste edozein irizpide.

3. Interes sozialeko deklaraziorako eskaera ebaluatu ondoren, Nafarroako Kultura Kontseiluak deklarazioa emateko edo ukatzeko proposamena igorriko dio kultur arloko eskumena duen zuzendari nagusiari, eta honek ebazpena emanen du proposamen horrekin bat.

7. artikulua. Kultur proiektuen edo jardueren eredu programak interes sozialekoak direla deklaratzeko.

Hurrengo urteetan antzeko edo pareko izaera edo edukia aurreikusia duten kultur proiektuak edo

jarduerak urtero gauzatzen dituzten entitateek kultur jardueren eredu programaren baten interes sozialaren deklarazioa eskatu ahal izanen dute, programan aurreikusten diren kontzeptuekin bat datozen jarduerak barnebilduz.

Interes sozialaren deklarazioa egiteko, aurreko artikuluan xedatutakoari lotuko zaio.

III. KAPITULUA

Kultur mezenasgorako zerga pizgarriak

1. atala

Zerga pizgarriak dituzten dohaintzak

8. artikulua. Dohaintzek bete beharrekoak.

1. Foru lege honetan aurreikusitako kenkariak eta murrizketak egiteko eskubidea emanen dute inter vivos dohaintzek, ezeztaz, soil eta hutsak direnek, 4. artikuluan aipatzen diren pertsonen eta entitateen alde eginak badira, interes sozialaren deklarazioa duten kultur proiektu edo jarduerak gauzatzeko.

2. Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioaren 162. legean aurreikusitako kasuen ondorioz dohaintza errebokatzen bada, dohaintza-emaileak sartuko ez dituen diru-kopuruak gehitu beharko dizkio errebokatzea gertatzen den zergaldiko kuotari, kasuan kasuko berandutza interesak barne.

3. Nafarroako Foru Komunitateari egindako dohaintzak, betiere, Nafarroako Foru Komunitateko ondarearen gaineko arauetan aurreikusitakoaren menpe egonen dira.

9. artikulua. Dohaintzengatik kenkarien eta murrizketen oinarria.

1. Dohaintzengatik kenkarien eta murrizketen oinarria hauxe izanen da:

a) Diruzko dohaintzetan, haien zenbatekoa.

b) Ondasun edo eskubideen dohaintzetan, eskualdaketa egiten den unean daukaten kontabilitate-balioa eta, halakorik ezean, ondarearen gaineko zergaren arauarekin bat zehaztutako balioa.

Doako zerbitzu-emateetan, egindako gastuen kostua, irabazi-marjina kontuan izan gabe.

c) Ondasun higiezinaren gaineko gozamenarako eskubide erreala eratzen denean, zenbateko jakin bat urtean, hauxe, alegia: gozamenak iraun bitarteko zergaldietako bakoitzean katastroko balioari 100eko 4 aplikatzearen emaitza; zergaldi bakoitzean dagokion egun kopuruaren proportzioan zehaztuko da.

d) Balioen gaineko gozamenerako eskubide erreala eratzen denean, gozamenak iraun bitarteko zergaldietako bakoitzean gozamenaren jaso-tako dibidenduen edo interesen urteko zenbatekoa.

e) Beste ondasun eta eskubide batzuen gaineko gozamenerako eskubide erreal bat eratzen denean, zenbateko jakin bat urtean, alegia, ekitaldi bakoitzean diruak duen legezko interesa gozamenaren balioari aplikatzeak dakartzan emaitza adinakoa; gozamenaren balioa eratzen denean zehaztuko da, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren arauekin bat.

f) Interes kulturalako ondasunen, ondasun inbentariatuen, tokiko garrantzia duten ondasunen edo kalitate bermatuko artelanen dohaintzetan, Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunen Balorazio Batzordeak egindako balorazioa. Nafarroako Kultur Ondarekoak ez diren kultur ondasunen kasuan, Batzordeak baloratuko du, halaber, lanaren kalitatea aski ote den.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoari jarraikiz zehaztutako balioaren gehieneko muga izanen da eskualdatutako ondasunak edo eskubideak eskualdaketen unean merkatuan duen balio arrunta.

10. artikulua. Dohaintzen justifikazioa.

1. Kenkariak eta murrizketak egiteko beharrezkoa izanen da dohaintza egiaz egin dela frogatzea, dohaintza-emalea den pertsonak edo entitateak luzatutako ziurtagiri baten bidez.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen den ziurtagirian alderdi hauek jasoko dira, gutxienez:

a) Izen-deiturak edo helbide soziala eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, bai dohaintza-emalearena bai dohaintza-hartzailea den pertsona edo entitatearena.

b) Dohaintza-hartzailea den pertsona edo entitatea 4. artikuluan aurreikusitakoaren artean dagoela berariaz aipatzea.

c) Dohaintzaren eguna eta zenbatekoa, diruzkoa denean.

d) Dohaintzaren balorazioaren zenbatekoa, diruzkoak ez diren dohaintzen kasuan edo doako zerbitzu emateetan.

e) Dohaintzan emandako ondasuna entregatu dela edo gozamenerako eskubidea eratu dela frogatzen duen agiri publikoa edo bestelako agiri kauto bat, diruzko dohaintzak ez direnean.

f) Dohaintza-hartzailea den pertsonak edo entitateak zertarako erabiliko duen dohaintza.

g) Dohaintzaren izaera ezeztazina berariaz aipatzea.

2. atala

Zerga pizgarriak dituzten erabilera maileguak edo komodatua

11. artikulua. Kenkaria izan dezaketzen erabilera maileguak edo komodatuak.

Foru lege honetan aurreikusitako kenkariak eta murrizketak egiteko eskubidea ematen dute interes kulturalako ondasunen, ondasun inbentariatuen, tokiko garrantzia duten ondasunen edo kalitate bermatuko artelanen erabilera maileguak edo komodatuak, bai eta interes sozialeko deklaraturako kultur proiektu edo jarduerak egiteko erabiltzen diren lokalenak ere.

12. artikulua. Erabilera maileguengatik edo komodatuarengatik egin daitezkeen kenkariaren eta murrizketen oinarria.

Oinarria urteko zenbateko bat izanen da, hain zuzen ere maileguak iraun bitarteko zergaldietako bakoitzean Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunen Balorazio Batzordeak ondasunaz egindako balorazioari 100eko 4 aplikatzearen emaitza; zergaldi bakoitzeko egun kopuruaren proportzioan zehaztuko da.

Proiektuak edo jarduerak egiteko lokalen kasuan, 100eko 4 hori katastroko balioari aplikatuko zaio, zergaldi bakoitzeko egun kopuruaren proportzioan.

13. artikulua. Erabilera maileguen edo komodatuaren justifikazioa.

1. Kenkariak eta murrizketak egiteko beharrezkoa izanen da erabilera mailegua edo komodatua egiaz egin dela frogatzea, pertsona edo entitate komodatu-hartzaileak luzatutako ziurtagiri baten bidez.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen den ziurtagirian alderdi hauek jasoko dira, gutxienez:

a) Izen-deiturak edo helbide soziala eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, bai komodatu-egilearenak bai komodatu-hartzailearenak.

b) Komodatu-hartzaile den pertsona edo entitatea 4. artikuluan aurreikusitakoaren artean dagoela berariaz aipatzea.

c) Ondasuna noiz entregatu zen eta erabilera maileguaren edo komodatuaren iraupen epea.

d) Erabilera maileguaren edo komodatuaren balorazioaren zenbatekoa, Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunen Balorazio Batzordeak egingandako balorazioaren arabera.

e) Agiri publikoa edo bestelako agiri kauto bat, erabilera mailegua edo komodatu eratu dela frogatzen duena.

f) Pertsona edo entitate komodatu-hartzaileak erabilera maileguaren xede den ondasunari ematen dion erabilera.

3. atala Zerga pizgarriak dituzten lankidetzak hitzarmenak

14. artikulua. Lankidetzak hitzarmenak interes sozialeko proiektu edo jardueretan.

1. Interes sozialeko kultur proiektu edo jardueren arloko lankidetzak hitzarmenaren ezaugarriak hauexek dira: 4. artikuluan aipatzen dituen pertsona edo entitateek izenpetzen dituzte, interes sozialaren deklarazioa duen proiektu edo jarduerak egiteko diru-laguntza baten truke, edo balorazio ekonomikoa izan dezakeen laguntza baten truke, eta bertan konpromisoa hartzen dute, idatziz, kolaboratzaileak proiektu edo jardueraren horietan parte hartu duela zabalteko edozein bitarteko erabiliz.

2. Lankidetzak hitzarmenek eragindako kenkariak eta murrizketen oinarria 9. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

3. Artikulu honetan zehaztutako lankidetzak hitzarmenaren barruan kolaboratzailearen parte-hartzearen zabalteko lanak ez dira zerbitzu-ematea.

15. artikulua. Lankidetzak hitzarmen baten ondorioz jasotako diru-laguntzen justifikazioa.

1. Kenkariak eta murrizketak egiteko beharrezkoa izan da lankidetzak hitzarmena egiaz egin dela frogatzea, pertsona edo entitate onuradunak luzatutako ziurtagiri baten bidez.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen den ziurtagiriaren alderdi hauek jasoko dira, gutxienez:

a) Izen-deiturak edo helbide soziala eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, bai pertsona edo entitate onuradunarenak bai kolaboratzailearenak.

b) Pertsona edo entitate onuraduna 4. artikuluan aurreikusitakoaren artean dagoela berriaz aipatzea.

c) Agiri publikoa edo bestelako agiri fede-emaitza, lankidetzak hitzarmena egin dela frogatzen duena.

d) Lankidetzak hitzarmenaren ondorioz jasotako laguntzaren zenbatekoa.

e) Pertsona edo entitate onuradunak zertarako erabiliko duen jasotako diru-laguntza.

4. atala Zerga pizgarriak

16. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek eskubidea izan dute zergaren kuota kenketa egiteko, dohaintzen, erabilera maileguen eta, lankidetzak hitzarmenaren ondorioz, ordaindutako kopuruen eta egindako gastuen (9., 12. eta 14. artikuluetan aipatzen direnak, hurrenez hurren) balorazioko lehen 300 euroen erdia adina. 300 eurotik gorako zenbatekoek 100eko 40ko kenkaria egiteko eskubidea izan dute. 300 euroko muga hori subjektu pasibo bakoitzeko eta zergaldiko aplikatuko da.

Kenkariaren oinarria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 64.1 artikuluan aipatzen duen mugaren ondorioetarako kontatuko da.

17. artikulua. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak.

Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek zerga onura hauek izan dute:

a) Zerga-oinarria zehazteko, dohaintzen, erabilera maileguen eta, lankidetzak hitzarmenaren ondorioz, ordaindutako kopuruen eta egindako gastuen (9., 12. eta 14. artikuluetan aipatzen direnak, hurrenez hurren) balorazioko zenbatekoak kontu-sail kengarria izan da.

b) Horrez gain, eskubidea izan dute zergaren kuota likidoan kenketa egiteko, dohaintzen, erabilera maileguen eta, lankidetzak hitzarmenaren ondorioz, ordaindutako kopuruen eta egindako gastuen (9., 12. eta 14. artikuluetan aipatzen direnak, hurrenez hurren) balorazioko lehen 300 euroen ehuneko 30eko. 300 eurotik gorako zenbatekoek kuota likidoan 100eko 20ko kenkaria egiteko eskubidea izan dute. 300 euroko muga hori subjektu pasibo bakoitzeko eta zergaldiko aplikatuko da.

Zerga oinarriko kontu-sail kengarria honako muga hauek handiena adinako izan da, gehienez ere:

- Murrizketa hau eta, halakorik bada, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen 37., 42. eta 47. artikuluetan aipatzen

diren murrizketak egin aurreko zerga oinarriaren ehuneko 30.

- Negozio zifraren zenbateko garbiaren milako 3.

Kuotako kenkaria, berriz, Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Legearen 72. artikulua 3., 6. eta 7. idatz-zatietan ezarritako araubideari eta mugei jarraikiz eginen da.

Artikulu honetan arautzen diren zerga onurak ez zaizkie inola ere aplikatuko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboari.

18. artikulua. Beste zerga onura batzuk.

1. Dohaintza-emailearen errenta zergapetzen duen pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta sozietateen gaineko zerga ordaintzetik salbuesirik egonen dira 8. artikuluan aipatzen diren dohaintzak direla eta gertatzen diren ondare gehikuntzak eta errenta positiboak.

2. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan, berriz, salbuesirik egonen dira 4. artikuluko f) letran xedatutakoarekin bat onuradun diren pertsona fisikoek izandako doako eskuraketak.

19. artikulua. Bateriaezintasunak.

Foru lege honetan araututako zerga onurak bateraezinak izanen dira Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean zenbateko horietarako ezarritakoekin eta sozietateen gaineko zergaren xedapenen testu bateginean, ekainaren 13ko 153/1986 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitakoan, 22.B) Bigarrena artikuluan ezarritakoekin.

20. artikulua. Onura fiskalak aplikatzeko baldintzak.

Aurreko artikuluetan aurreikusitako zerga onurak aplikatzeko, pertsona edo entitate onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Dohaintzak, erabilera maileguak edo lankidetzak hitzarmena egiaz egin direla eta interes sozialaren deklarazioa duten kultur proiektu edo jardueretarako egiaz erabili direla frogatzea, kasuan kasuko ziurtagirien bidez.

b) Luzatutako ziurtagirien edukiaren berri ematea zerga administrazioari, zergen arloko araudietan ezarritako ereduetan eta epeetan.

Lehen xedapen gehigarria. Kultur mezenasgoaren arloko lehentasunezko jarduerak eta proiektuak.

1. Foru lege bidez ezarri ahal izanen da zergaldi bakoitzean kultur mezenasgoaren arloan lehen-

tasuna duten jardueren eta proiektuen zerrenda bat. Nolanahi ere, jarduera eta proiektu horiek 2., 4., 5. eta 6. artikuluetan aurreikusitako betebeharrak eta baldintzak bete beharko dituzte.

2. Jarduera eta proiektu horiei dagokienez, kasuan kasuko foru legeak ehuneko bost gehitu ditzake, gehienez ere, foru lege honetan ezarritako kuota-kenkarien ehunekoak eta mugak.

Bigarren xedapen gehigarria. Mezenas izatea jendaurrean aitortzea.

Nafarroako Gobernuak bitarteko egokiak ezarriko ditu jendaurrean aitortzeko mezenasgoaren bidez kulturaren alde egiten duten pertsona fisikoen edo juridikoen lan filantropikoa.

Hirugarren xedapen gehigarria. Interes sozialaren deklarazioa diru-laguntzetarako deialdietan.

Kultura arloko eskumena duen departamentuak diru-laguntzen deialdietan behar diren zehaztapenak ezarri ahal izango ditu, behar besteko kalitatea dutela iritzita, proiektu edo jardueren interes sozialaren deklarazioa jaso dezaten foru lege honen ondorioetarako, diru-laguntza jaso ez badute ere.

Laugarren xedapen gehigarria. Finantza produktu xedaezin batzuetarako ekarpenak kultur mezenasgoaren alde.

1. Pertsona fisikoek eta juridikoek diruzko ekarpenak egin ditzakete kultur mezenasgoari laguntzeko, kreditu entitateek kudeatutako finantza produktu jakin batzuetarako, araubide honi loturik betiere:

a) Ekarpene horiek denboran mugaturik egonen dira, eta erabilezinak izanen dira finantza produktu horretan sarturik dauden bitartean.

Ekarpene titularrek kreditu entitateekin adostuta finkatuko dute ekarpenek zenbat denbora emanen duten finantza produktuan; denbora hori ez da izanen lagundu gogo den kultur proiektua edo jarduera garatzeko denbora baino luzeagoa.

b) Finantza produktu bakoitza lotuta egonen da kultur arloko jarduera edo proiektu bat garatzen duen pertsona edo entitate batekin, jarduera edo proiektu hori interes sozialaren deklarazioa jaso badu foru lege honetan xedatutakoarekin bat.

c) Ekarpene horien egiazko titularra ekarpenegilea izanen da, eta, beraz, finantza mozkinak egiazko titular horri egotziko zaizkio.

Aurrekoa galarazi gabe, finantza produktu bakoitzaren mozkin horiek, atxikipena egiteko betebeharraren menpe ez daudenak, doan eskualdatuko zaizkio sei hilean behin, nahitaez, finantza

produktuarekin loturik dauden pertsona edo entitate guztiei, b) letran aipatutako horiei alegia.

d) Finantza produktua kudeatzen duen kreditu entitateak urtero jakinaraziko dizkie ekarpen egilei eta pertsona edo entitate onuradunei titular bakoitzaren kasuan lortu diren eta pertsona edo entitate onuradun horiei eskualdatu zaizkien mozkinen egiten duten zenbatekoa.

2. Finantza mozkin horien tributu araubidea hauxe izanen da:

a) Xedapen gehigarri honetan araututako finantza produktuekin lotura duten ekarpenen titularrek lortutako finantza mozkinak pertsona fisikoek errentaren gaineko zergatik eta sozietateen gaineko zergatik salbuetsirik egonen dira.

b) Mozkin horien eskurapenak, 4. artikuluko f) letran xedatutakoarekin bat onuradun diren pertsona fisikoek doan lortutakoak, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergatik salbuetsirik egonen dira.

c) Mozkin horien dohaintzek, pertsona edo entitate onuradunen alde egindakoek, foru lege honetan ezarritako zerga onuren aplikaziorako eskubidea sortuko dute.

d) Zerga onura horiek aplikatzean, 19. artikuluan jasotako bateraezintasunak kontuan hartu behar dira, eta 20. artikuluan ezarritako baldintzak bete.

Bosgarren xedapen gehigarria. Kultur mezenasgoari laguntzeko aplikazio informatikoa

Nafarroako Gobernuak aplikazio informatiko bat garatuko du kultur mezenasgoa errazteko, halako moduan non, Nafarroako Gobernuaren web orriaren bidez, modu elektronikoa dohaintzak egin ahal izanen baitira foru lege honi jarraikiz interes sozialaren deklarazioa jaso duten jarduerak edo proiektuak garatzen dituzten pertsona edo entitateentzat.

Ogasun arloko eskumena duen departamentuko titularrak foru agindu bidez arautuko ditu aplikazio informatiko horren ezaugarriak eta funtzionaltasunak.

Seigarren xedapen gehigarria. Helburuen betetze maila baloratzea eta Nafarroako Parlamentuari horren berri ematea.

Kulturaren arloko eskumena duen departamentuaren erantzukizuna izanen da egiaztatzea, urtero, dohaintzak, erabilera maileguak edo komodatuak eta lankidetzak hitzarmenak egiaz erabili direla interes sozialaren deklarazioa duten kultur proiektu eta jardueretan, bai eta baloratzea bete ote

diren foru lege honen xedeak, kultura sustatzekoak alegia.

Nafarroako Gobernuak urtero jakinaraziko dizkio Nafarroako Parlamentuari foru lege honetan aipatzen den kultur mezenasgoaren emaitzak, honakoak ere zehaztuta: interes sozialaren deklarazioa jaso duten proiektu edo jarduerak, onuradun izan diren pertsona edo entitateak, erabilitako mezenasgo modalitate desberdinen balorazioa eta aplikatutako zerga onurak.

Informazio hori subjektu pasiboen zerga aitorpena egiteko aldiak amaitu ondoren emanen da, datuak eskuragarri daudelarik eta informatikoki analizatu ondoren.

Xedapen iragankor bakarra. Ondasunen balorazioa.

Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunen Balorazio Batzordea eratu arte, foru lege honen bidez esleitzen zaizkion eginkizunak kulturaren eskumena duen departamentuak beteko ditu.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrak gabe gelditzen da apirilaren 19ko 118/1999 Foru Dekretua, kultur jardueren interes sozialaren deklarazioa arautzen duena.

Azken xedapenetan lehena. Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea aldatzea.

1. Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzen zaio. Testu hau izanen du:

“HAMAIKAGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.
Foru lege honen zerga onuren bateraezintasuna.

Foru lege honen artikuluetan eta xedapen gehigarrietan araututako zerga onurak bateraezintasun izanen dira Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen foru legean zenbateko berberetarako ezarritakoekin. Ekainaren 13ko 153/1986 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onartutako Sozietateen gaineko Zergaren xedapenen Testu Bateginaren 22 B) Bigarrena artikuluan ezarritako onurekin dagoen bateraezintasun hori aplikatuko zaie, halaber, Nafarroako Administrazio Publikoari edo irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuei Nafarroako Gobernuak ondorio hauetarako interes sozialaren deklarazioa jaso duten proiektuak egiteko dohaintzan emandako diru kopuruei”

2. Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko

10/1996 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzen zaio. Testu hau izanen du:

“HAMABIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Babesletza kontratuek eragindako publizitate gastuen zerga onurak.

Sozietateen gaineko Zergaren xedapenen Testu Bateginean, ekainaren 13ko 153/1986 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onartutakoan, 22 B) Hirugarrena artikuluan ezarritako zerga onurak aplikatuko dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu eskudunek interes sozialeko deklaraturako kirol, kultur eta gizarte laguntzako jardueren babesletza kontratuek eragindako publizitate gastuengatik ordaindutako diru kopuruetarako.

Azken xedapenetan bigarrena. Arauak emateko gaikuntza.

Kultura arloko eskumena duen kontseilariari ahalmena ematen zaio arauak emateko, beharrez-

koak direnak honakoak egiteko prozedura eta aurkeztu beharreko dokumentazioa arautzeko: interes sozialaren deklarazioa, ereduko programen interes sozialaren deklarazioa, zenbait proiektu edo jardueraren interes sozialaren deklarazioa, bai eta interes sozialaren deklarazioa jaso duten proiektu edo jarduerari eman beharreko publizitatea arautzeko ere.

Interes sozialaren deklaraziorako prozedura bakarra izanen da foru lege honetan eta sozietateen gaineko zergaren Testu Bateginean, ekainaren 13ko 153/1986 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitakoan, 22 B) letraren hirugarren atalean aurreikusitakoaren ondorioetarako.

Azken xedapenetan hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2013ko urriaren 30ean hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127., 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetuko dela, Erregelamenduko 152. eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun baliouduneko epea hasiko da eta 2013ko abenduaren 4an eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahaliko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Foru lege proiektu honen xedea da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen aldaketa puntuala egitea.

Baliabiderik ez duten hipoteka-zordunak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuak zenbait neurri fiskal ezarri zituen, etxebizitza erosteko hipoteka mailegu edo kredituek eragindako betebeharrak bete ezinik, familia askotan gertatutako egoera ekonomiko larria samurtzeko. Neurri fiskal horiek 8/2012 eta 9/2012 foru legeen bidez egokitu ziren Foru Komunitateko zerga arloko araudira.

Berehala ikusi zen, ordea, zerga arloko neurri horiek ez zirela oso eraginkorrak, gehienbat haien aplikazio esparrua, aipatutako errege lege dekretuarena alegia, txikiegia zelako, bi aldetatik ikusirik. Batetik, zordunak kontuan hartzen zituen familia unitateko kide guztiek errentarik ez zutenean soilik. Bestetik, ez zen ohiko etxebizitzaren hipoteka-betearazpen guztietan aplikatzen, baizik eta soilik etxebizitza hori ordainean ematen zen kasuetarako.

Errege lege dekretu horren ondotik aldaketa garrantzitsuak gertatu dira arauetan. Batetik, azaroaren 15eko 27/2012 Errege Lege Dekretuak bi urteko etena ezarri zuen larritasun bereziko kasuetan dauden zordun batzuentzat, epe horretan ohiko etxebizitzatik ez botatzeko ohiko etxebizitzaren hipoteka betearazteko epaiketa bidezko edo epaiketaz kanpoko prozesuetan. Bestetik, maiatzaren 14ko 1/2013 Legeak nabarmen handitu zuen 6/2012 Errege Lege Dekretuaren aplikazio esparrua, eta halatan, familia unitatearen diru-sarreretarako muga Eragin Anitzeko Errenten Adierazle Publikoaren hirukoitza da orain (edo laukoitza, familia unitateko kideren batek desgaitasuna duenean).

Aurrekoa ukatu gabe, 6/2019 Errege Lege Dekretuaren aplikazio esparrua nabarmen zabaldu bada ere, oraindik behar bestekoa ez dela irizita, hipoteka-zordunen babesa areagotzea da foru lege proiektu honen asmoa. Hala, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari dagokionez, zerga horren kargaren zenbatekoa jasanarazteko

debekuaren norainokoa, 2/1995 Foru Legearen 174.2 artikuluan ezarritakoa, handitu egiten da: zergadunaren ordezkoko gisa ezin izanen dute zenbatekoa jasanarazi ondasun higiezin eskuratzen duten finantza entitateek, ohiko etxebizitzaren eskualdaketa entitate horietako batek eskatutako epaiketa bidezko prozedura batean egindakoa bada eta etxebizitza hori denean subjektu pasiboaren titulartasuneko etxebizitza bakarra. Hipoteken Legearen 129. artikuluan aurreikusten den kasuan ere, hau da, ohiko etxebizitzaren epaiketaz kanpoko salmenta, notario bidezkoa, egiten denean, eskuratzaileak ezin izanen du kargaren zenbatekoa jasanarazi.

Horri jarraituz, kasu horietan etxebizitzaren eskualdatzailea den hipoteka-zordunak ez du bere gain hartuko hiru-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren karga. Zerga horren ondorioetarako babestutako hipoteka-zordunen multzoa zein den zedarrizteko, aurrerantzean ez dira kontuan hartuko familia unitatearen diru-sarrerak, eta ez da beharrezkoa izanen etxebizitza ordainean ematea. Aski izanen da hipoteka-zordun baten ohiko etxebizitzaren eskualdaketa finantza entitate batek eskatutako epaiketa bidezko prozedura batean gertatzea, betiere etxebizitza hori baldin bada subjektu pasiboaren titulartasuneko etxebizitza bakarra, edo ohiko etxebizitzaren epaiketaz kanpoko salmenta izatea, notario bidezkoa, Hipoteka Legearen 129. artikuluan aurreikusitako kasua, alegia.

174.2 artikulua aldaketak 2012ko martxoaren 11tik aurrera izanen ditu ondorioak, honen bidez aldatzen den aginduak ondorioak izan zituen egunetik aurrera, beraz.

Beste alde batetik, Ekintzaileei laguntzeko eta hazkundea eta enplegu-sorkuntza bizkortzeko neurriei buruzko uztailaren 26ko 11/2013 Legearen 34. artikuluan ezarritakoaren ondorioz ADIF enpresa-entitate publikoari egindako trenbideko azpiegituren eta geltokien eskualdaketak toki entitateei dagozkien zerga orotatik salbuetsirik egonen dira. Kasu horietan ez da aplikatzekoa izanen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 57.2 artikuluan aurreikusitakoa, eta salbuespen horrek ez du ordainik izanen.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikuluan, eta Nafarroako Par-

lamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 152. eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, foru lege proiektu hau onesteko gehiengo osoa behar da.

Artikulu bakarra. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen honako agindu hauek testu hau izanen dute aurrerantzean:

Bat. 174.2. artikulua. 2012ko martxoaren 11tik aurrera gertatzen diren zergapeko egintzetarako ondorioekin.

“2. Hipoteka-zordunen ohiko etxebizitzaren eskualdaketatik, finantza entitate batek eskatutako epaiketa bidezko prozedura batean egindakoak badira eta etxebizitza hori denean subjektu pasiboaren titulartasuneko etxebizitza bakarra, ondasun higiezin eskuratzen duen finantza-entitateak, zergadunaren ordezkoko gisa, ezin izanen dio kargaren zenbatekoa jasanarazi zergadunari.

Aurreko lerroaldean aurreikusitakoa aplikatuko da, halaber, Hipoteka Legearen 129. artikuluan aurreikusten den kasuan, hau da, ohiko etxebizitzaren epaiketaz kanpoko salmenta, notario bidezkoa, egiten denean.

Bi. Hamabigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamabigarren xedapen gehigarria. Estatuko trenbide sarea administratzen duen Trenbideko Azpiegituren Administrazioa (ADIF) enpresa-entitate publikoari eskualdatzea sare horren titulartasuna.

Ekintzaileei laguntzeko eta hazkundea eta enplegu-sorkuntza bizkortzeko neurriei buruzko uztailaren 26ko 11/2013 Legearen 34. artikuluan ezarritakoaren ondorioz ADIF enpresa-entitate publikoari egindako trenbideko azpiegituren eta geltokien eskualdaketak toki entitateek ordainarazi beharreko tributu orotatik salbuetsirik egonen dira, eta ez da aplikatzekoa izanen foru lege honen 57.2 artikuluan aurreikusitakoa.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, lehen idatz-zatian aurreikusitako ondorioak ukatu gabe.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

6/2006 Foru Legeak modu integralean arautzen du kontratazio publikoa Nafarroan. Esleipen-prozedurak dira sistemaren giltzarrietako bat.

50. artikuluan ezartzen da zer lau prozedura erabil daitezkeen –prozedura irekia, murriztua, negoziatua eta lehia-elkarrizketa–, eta, era berean, xedatzen da kontratazio organoek prozedura irekiak zein murriztuak erabili ahal izanen dituztela.

Halaber, artikulua horretan adierazten da gainerako prozedurak –prozedura negoziatua, bai publikitatearekin egiten dena bai gabekoa, eta lehia-elkarrizketa– legean bertan berariaz adierazitako kasuetan soilik erabili ahal izanen direla.

Alabaina, Kontratuen Erregistro Publikoaren datuen arabera –erregistro hori Kontratazio Publikorako Batzordearen menpe dago–, kontratazio-prozedura erabiliena, alde handiz, publikitatearekin gabeko prozedura negoziatua izan da. Kontratu guztien % 60 baino gehiago egin ziren prozedura horren bidez, eta kontratuok guztira kontratatutako zenbatekoaren % 17 baino gehiago egin zuten. Ondorioa da prozedura hori gehiegi erabiltzen dela, eta hori ez dela nahi dena eta bilatzen dena; izan ere, gardentasun-falta dakar horrek, eta gardentasuna da Europar Batasunaren legediaren printzipio inspiratzaileetako bat.

Prozedura negoziatua, 2.1 artikulua a), b), c) eta d) letretan zehaztutako pertsona eta entitateei dagokienez, Legearen 70. artikulutik 73. artikulura bitartekoetan dago araututa. Zehazki, Europar Batasunean publikitatearekin ez duen prozedura negoziatua zein kasutan aplikatu daitezkeen 73. artikuluan ezartzen da. Beste kasu espezifikoago batzuekin batera, xedatzen da ezen Europar Batasunean publikitatearekin ez duen prozedura negoziatua jotzen ahalko dela kontratuaren balio zenbatetsia, obra kontratuarekin, gehienez 750.000 eurokoa bada, BEZa aparte; laguntza kontratuarekin, balio zenbatetsia, BEZa aparte, gehienez 90.000 eurokoa bada; eta, hornidura kontratuarekin, kontratuaren balio zenbatetsia, BEZa aparte, gehienez 90.000 eurokoa ere bada.

Arrazoizkoa dirudi, beraz, gehienezko zenbateko horiek berraztertu eta jaistea. Foru lege proposamenak muga estuagoak planteatzen ditu.

Bestalde, prozedura negoziatua, 2.1 artikulua e) eta f) letretan zehaztutako pertsona eta entitateei dagokienez, 191. artikulutik 193. artikulura bitartekoetan dago araututa. Zehazki, 193. arti-

kuluan, Europar Batasunean publizitaterik ez duen prozedura negoziatua arautzen da. Deigarria gertatzen da indarrean den araudian tarte handiagoa uztea pertsona eta entitate horiei 73. artikulua aplikatzen zaienei baino. Horregatik, lege proposamenak planteatzen du 193.1 artikulua aldatzea, halako moduz non, zuzenean 73. artikulua aplikatuko dela esanda, kontratuak kasu beretan esleitzen ahalko diren Europar Batasunean publizitaterik ez duen prozedura negoziatuaren bidez.

Azkenik, 89. artikuluan, Europar Batasuneko atalasetik beherako kontratuarako publizitate arauak ezartzen dira. Artikulu horren 3. idatzatian, honakoa esaten da: "prozedura negoziatua Nafarroako Kontratazioaren Atarian edo eguneroko prentsan iragartzen ahalko da." Alegia, prozedura negoziatu baten bidezko lizitazio bat iragarri ala ez entitate kontratatzailearen esku gelditzen da. Adierazi den bezala, eta 73. artikuluan ezartzen den moduan, hainbat kasutan aplikatzen ahal da prozedura negoziatua, baina bai dirudi arrazoizkoa horietako batzuetan nahitaezkoa izatea prozedura horren existentzia iragartzea. Lege proposamenak planteatzen duena da prozedurek publizitatea izan dezatela baldin eta prozedura negoziatua hautatzeko arrazoi bakarra izan bada zenbatetsitako balioa, eta bakarrik zenbateko jakin batzuk gainditzen badira. Halaber, 24. artikuluan aldatetako bat ere sartzen du, ekiditeko ezen, hornidura edo laguntza kontratu aldizkakoetan edo epe jakinean berritu behar direnetan, aukeratu dadila kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko metodotzat publizitatea egiteko betebeharra saihestea helburu izanen duen bat.

Artikulu bakarra. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzea.

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeari aldaketa hauek egiten zaizkio:

Bat. 24.8. artikulua amaieran lerrokada bat gehitzen da; honakoa:

"Era berean, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko metodoa ezin izanen da aukeratu 89.3 artikuluan jasotako publizitate-betebeharrak saihesteko asmoarekin."

Bi. 73.2.c) artikulua aldatzen da, eta honela geldituko da:

"c) Balio zenbatetsia, BEZa aparte, gehienez 600.000 eurokoa duten kontratuetan. Balio zenbatetsia, BEZa aparte, 40.000 eurotik gorakoa ez bada, izapide hauek bakarrik egin beharko dira: aurretiaz kreditua erreserbatzea, aplikatu beharreko aurrekontu legeen arabera, eta faktura aurkez-

tea. BEZa aparte 3.000 eurotik beherako balioa duten kontratuetan, faktura aurkeztea besterik ez da eskatuko."

Hiru. 73.3.d) artikulua aldatzen da, eta honela geldituko da:

"d) Balio zenbatetsia, BEZa aparte, gehienez 75.000 eurokoa duten kontratuetan. Balio zenbatetsia, BEZa aparte, 15.000 eurotik gorakoa ez bada, izapide hauek bakarrik egin beharko dira: aurretiaz kreditua erreserbatzea, aplikatu beharreko aurrekontu legeen arabera, eta faktura aurkeztea. BEZa aparte 3.000 eurotik beherako balioa duten kontratuetan, faktura aurkeztea besterik ez da eskatuko."

Lau. 73.4.e) artikulua aldatzen da, eta honela geldituko da:

"e) Balio zenbatetsia, BEZa aparte, gehienez 75.000 eurokoa duten kontratuetan. Balio zenbatetsia, BEZa aparte, 15.000 eurotik gorakoa ez bada, izapide hauek bakarrik egin beharko dira: aurretiaz kreditua erreserbatzea, aplikatu beharreko aurrekontu legeen arabera, eta faktura aurkeztea. BEZa aparte 3.000 eurotik beherako balioa duten kontratuetan, faktura aurkeztea besterik ez da eskatuko."

Bost. 89.3 artikulua aldatzen da, eta honela geldituko da:

"3. Prozedura negoziatua Nafarroako Kontratazioaren Atarian edo eguneroko prentsa idatzian iragartzen ahalko da, eskaintza aurkezteko informazioa zein helbidetan jaso daitekeen adierazita. Irargari horrek ez du prozeduraren funtsa hutsalduko. Hala ere, 73.2.c), 73.3.d) eta 73.4.e) artikuluetan jasotako kasuetan, kontratuaren balio zenbatetsiak gainditzen baditu, hurrenez hurren, 500.000 euro, 60.000 euro eta 60.000 euroko kopuruak, BEZa aparte betiere, nahitaezkoa izanen da Nafarroako Kontratazioaren Atarian edo eguneroko prentsa idatzian iragartzea."

Sei. 193.1 artikulua aldatzen da, eta honela geldituko da:

"1. Europar Batasunean publizitaterik ez duen prozedura negoziatua erabiliko da 73. artikuluan adierazitako kasuetan."

Xedapen iragankor bakarra. Hasitako prozeduren tramitazioa.

Foru lege honek indarra hartu aurretik hasitako prozeduren tramitazioak aurreko legeriarekin jarraituko du.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren politika orokorrari buruzkoa, enpresen finantzaketari abalen bidez laguntzeari dagokionez.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuaren politika orokorrari buruzkoa, enpresen finantzaketari abalen bidez laguntzeari dagokionez.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Manu Ayerdi Olaizola foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari, abalak ematearen bidez enpresen finantzaketan laguntze aldera Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran izapidetzeko.

Parlamentu-talde guztiok kezka handi bat dugu: Nafarroako langabezia-tasa jasanezina da.

Halaber, denak gaude ados esatean beharrezkoa dela ekonomia suspertzea, neurri handi batean eskariaren jaitsierak blokeaturik dagoen ekonomia delako. Egia da jaitsiera hori neurri handi batean gertatu dela barne-kontsumoak behea jo duelako langabeen bolumena ikaragarri igoztearen eta gastu publikoa gogor murriztearen eraginez, baina jaitsiera hori orobat zor zaio enpresek zirkulatzailerearen eta are inbertsio berrien finantzaketarako ohiko tresnak baliatu ezinari, tresna horiek paralizatuta baitaude gaur egun.

Etsigarria da ikustea nola jaisten ari den Nafarroan, eskuragarri ditugun estatistika publikoen arabera, sektore pribatuarentzako kreditua, eta hori modu bereziki nabarmenean gertatu da azken urte honetan; izan ere, 2012ko ekainean 22.149 milioikoa izatetik 2013ko ekainean 19.384 milioikoa izatera igaro da. Kontuan hartzen baldin badugu kreditu guztien bolumen oso adierazgarri bat orain dela zenbait urte emandako hipoteka-operazioei dagokiela eta kreditu bolumen handi samar bat lehenagoko operazioak birfinantzatetik heldu dela, ondorioa argi dago: siku dago kreditua inbertsio-operazio berrietarako eta are zirkulatzailerea finantzatzeko operazioetarako ere, enpresentzat hain beharrezkoa dena.

Esparru horretan, funtsezkoa da jakitea Gobernua zer ari den egiten eta zer egin nahi duen. Nafarroan zenbait bide baliatu izan dira Gobernuak finantzaketarekin duen konpromisoa gauzatzeko.

Alde batetik, Nafinco izenez ezagutzen den abal-programa dago. Orain Sodenak kudeatzen du programa hori, eta inbertsiorako eta zirkulatzailerako abalak ematean datza batik bat. Orain dela zenbait hilabete, Gobernuak jakinarazi zuen bide horiek ixtea eta abal berririk ez ematea erabaki zuela. Izan ere, eta erabaki hori berretsiz, programa horretako abal saldo bizia ia 126 milioi eurokoa zen 2013ko ekainaren 30ean, eta sei hilabete lehenago zegoen saldoa 282 milioikoa zen. Jaitsiera bereziki adierazgarria da zirkulatzailerearen finantzaketarako laguntzari dagokionez, non abalen saldo bizia ia 100 milioi euro jaitsi baita.

Bestalde, Sodenak Nafincoren programatik kanpo emandako abalak daude, batik bat inbertsioari edo konpainia jakin batzuen berregituraketari laguntzeko. Eta saldo bizi hori ere jaitsi da. 2013ko ekainaren 30ean ia 48 milioi eurokoa zen, eta 2012ko ekainaren 30ean, berriz, 57,5 milioikoa.

Kasu honetan adierazi beharra dago 2012ko ekainaren 30ean Sunsundeguiko 13,1 milioi sartzen zirela, urtebete geroago jada kapitalizatuta zeudenak.

Horrekin batera, inbertsio-proiektu berriak finantzatzeko EIB-Europako Inbertsio Bankuarekiko hitzarmena dago, bai inbertsio finkorako, bai zirkulatzailerako inbertsiorako finantzaketa barnebiltzen duena. Asko hitz egin da hitzarmen horri buruz. Gure taldearen mozioren bat ere onetsi da, Sodena gehiago inplika dadin iradokiz, baina oraingoz, eskuragarri dauden azken datuekin bederen, funtzionamendua ez da nahi bezain positiboa, ezta hurrik eman ere.

Hori guztia gorabehera, egia da, orobat, Gobernuak enpresen zirkulatzaillean eragin dezakeela, politika ezberdinak ezarriz fiskalitateari dagokionez, bai zerga-itzulketen ordainketarako epeei dagokienez (bereziki BEZa), bai zor fiskalak geroratzeari dagokionez ere. Gai hori, garrantzi handikoa baita, parlamentari honen beste jabeldura baten xede izan da jada, eta horregatik ez da sartu ekimen honetan. Egiteke dago, halaber, BEZa aldatzeari buruzko proposamen baten eztabaida, enpresa berriak abian jartzean jasandako BEZa azkarrago berreskuratzeko. Gai hori jorratzea ere ez da jabeldura honen xede.

Kontua da aztertu behar dela zer politika orokor baliatu duen eta baliatuko duen Gobernuak, gure enpresek kreditua lortzeko dituzten zailtasunak ikusita.

Eskuragarri ditugun datuek diotenez, Nafinco izeneko programaren bilakaera ikusita, murrizketen eta kredituaren txorrota itxita dagoen koiuntura are larriago honetan, Gobernuaren erretiratzen ari da eta ahal den guztian ari da jaisten inbertsioari eta zirkulatzailleari laguntzeko bere abal-lerroak. Ez dago argi aurrekontu-arazoengatik den (kaudimengabeziak eta inpaktua defizit-helburuan) ala etorkizunean arriskuak ekiditeko zuhertasun-irizpide batengatik den (balizko kaudimengabeziak). Gobernuak bide horretatik jarraitzeko asmorik duen edo, aitzitik, bere abal-politika orokorra aldatzeko prest dagoen ere ez dago argi.

UPNk, PSNk eta PPNk Enpleguaren Mahaian onetsitako dokumentuak "Enpresa-jardueren kreditua eta finantzaketa erraztea" izeneko atal bat dauka, zazpi parte dituena. Horietako batzuetan zenbait elementu errepikatzen dira, eta beste batzuetan zehaztu egiten dira zenbait auzi; esate baterako, zirkulatzailerako abalen lerrorako dagoen muga igotzea, zeina ez baita betetzen ari, alderantziz baizik, arestian emandako datuek frogatzen dutenez.

2013tik 2015era bitarteko Ekintza Planaren jarraipen-dokumentuan ere –Gobernuak 2013ko irailean aurkeztu zuen– ez da argi gelditzen zer politika baliatuko den arlo horretan.

Horregatik guztiagatik aurkezten dugu jabeldura hau, eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria etortzea eskatzen dugu.

Iruñean, 2013ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Baterako Hezkuntzako edota Berdintasunean Hezteko plan bat presta dezan, Hezkuntza Departamentuak sustatuta eta Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuaren laguntza eta aholkularitzarekin.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Baterako Hezkuntzako edota Berdintasunean Hezteko plan bat presta dezan, Hezkuntza Departamentuak sustatuta eta Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuaren laguntza eta aholkularitzarekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

“Nafarroako Gaztediari buruzko 2012ko Diagnostika” izeneko txostenean neska eta mutiko gazteen arteko berdintasunari dagokionez ageri diren datuak zinez kezkarriak dira. Hona hemen horietako batzuk:

“Gazteen % 80k uste du neskak gustu eman behar diola bere mutil-lagunari; % 40k baino gehiagok uste du mutilaren betebeharra dela neskari babes ematea; % 60 inguruk uste du zeloak normalak direla harreman batean; 10 nerabetik 3k uste dute emakumeak errealizatuta sentitzen direla mutil-laguna daukatenean.

Gero eta salaketa gehiago dago emakume gazteen aurkako genero-indarkeria dela-eta”

Gazteek ez dute hautematen emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunezko gizarte-rik.

Hortik abiatuta, uste dugu sentsibilizazio-kanpainak egin behar direla lehenengo eta behin; baina beste urrats bat gehiago ere egin beharra dagoela ere bai, prestakuntza programen bidez, herritar guztiei zuzendurik: profesionalei, familiei eta gaztediari berari.

Beti egin dugu apustu prebentzioaren alde, eta uste dugu genero-indarkeriaren aurka egiteko modurik onena dela berdintasunean hezteko, baterako hezkuntzako programen bidez. Horregatik uste dugu beharrezkoa dela baterako hezkuntzako plan bat egitea, hezkuntza-esparruaren alderdi guztiak kontuan hartuko dituen: irakasleak, ikasleak, ikastetxeetako antolakuntza eta ikastetxeetako lantaldeak eta zuzendaritzak. Orobat barnebidu behar ditu materialak, liburuak, jolasak, ipuinak eta abar, familiak, irakasle ez diren langileak...

Hori dela-eta, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeen ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du baterako hezkuntzako edo berdintasunezko hezkuntzako plan bat egin dezan, Hezkuntza Departamentuak bultzatuta eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak lagunduta.

- Plan hori paraidetzazkoa izanen da, eta bertan parte hartuko dute, besteak beste, irakasleek, ikasleek eta familiek.

- Plana sei hilabeteko epean aurkeztuko da Parlamentuan.

Iruñean, 2013ko urriaren 28an

Foru parlamentariak: Bikendi Barea Aiestaran eta Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urte anitzeko finantzaketa eman dezan Erregeren Or baitzetako Arma Olako jauregia zaharberitzeko proiekturako.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita urte anitzeko finantzaketa eman dezan Erregeren Or baitzetako Arma Olako jauregia zaharberitzeko proiekturako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, presako prozeduraren bidez kasuko batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urte anitzeko finantzaketa eman dezan Erregeren Or baitzetako Arma Olako jauregia zaharberitzeko proiekturako.

2010eko otsailean, Aezkoako Batzarreak Sustapen Ministerioan aurkeztu zuen Erregeren Or baitzetako Arma Olako jauregian esku hartzeko lehen fasea egiteko proiektua, eta diru-laguntza eskatu zuen, kulturako % 1aren kargura. Eskabide hori urte bereko ekainean osatu zen, Ministerioak dokumentazio gehigarria aurkezteko eskatu ostean. Urte horretako espediente-aurreikuspenak ez zuen ahalbidetu proiektua finantzatzea, eta proiektu hori hurrengo erabaki-organorako erreserban gelditu zen.

2011ko otsailean, Aezkoako Batzarre Nagusiak Sustapen Ministerioari berriro ere eskatu zion aurreikusitako obrak egiteko finantzaketa; horretarako, hasierako eskabidea aldatu zuen, jauregia

zaharberitzearen alde, olako obrak Landa Garaipen Iraunkorrari buruzko Programako funtsetako diru-laguntzen aurreikuspenean sartuta baitzeuden.

2011ko martxoaren 22an, Batzorde Mistoak Arma Olako jauregian esku hartzeko finantzaketa onetsi zuen, kulturako % 1aren kargura; halatan, 899.990,78 euroko diru-laguntza ezarri zen; proiektuaren aurrekontuaren % 75a, hain zuzen ere. Batzarreak Nafarroako Gobernuaren 2010eko konpromiso bat zeukan, gainontzeko % 25a kofinantzatzekoa.

Izapideak abiarazteko, Batzarrearen eta Ministerioaren arteko hitzarmena –urtesariak eta alderdi bakoitzaren betebeharrak jasotzen zituenafalta zen. Dokumentu hori sinatzeko ekitaldia behin baino gehiagotan atzeratu zen, eta, azkenik 2011ko abenduaren 1ean sinatu zen. Urte bereko abenduaren 28an, obrak egiteko diru-laguntzaren lehen epea –315.000 euro– aurreratu zuen Ministerioak.

Espedientea gorabeheratsua izan da, eta ziurgabetasunez josia egon da. Hona espedientearen azken urratsak eta egungo egoera:

1.- 2014ko ekainaren 1a baino lehen justifikatu behar da Sustapen Ministerioak aurreratutako zenbatekoari dagokion inbertsioa (315.000 euro), gehi gainontzeko % 25a (105.000 euro); hau da, obrako 420.000 euro, egun horretara bitarte eginak eta ziurtagiriz frogatuak.

2.- Justifikazio horretatik aitzina, Sustapen Ministerioak hurrengo urtesaria aurreratuko du (382.548 euro). Zenbateko hori, gehi gainerako % 25a (127.516 euro), 2015eko ekainaren 1a baino lehen justifikatu behar da obra-ziurtagirien bidez; inbertsioa, guztira, 510.064 eurokoa da. Zenbateko horri aurreko urtean justifikatu beharrekoa gehitzen bazaio, ziurtagiriz frogatutako obra 930.000 eurokoa da.

3.- Bigarren ziurtagiriaren ostean, Sustapen Ministerioak hurrengo eta azken urtesaria aurreratuko du (202.450 euro). Zenbateko horrek eta dagokion gainerako % 25ak (67.484 euro) egiten dute obraren azken ziurtagiria, eta 2016ko ekainaren 1a baino lehen entregatu behar dira 269.933 euro horiek. Arestiko bi ziurtagiriekin, aurreikusitako obra guztia biltzen da jada: 1.199.998 euro.

Hortaz, 2016ko ekainaren 1a izanen da azken eguna Erregeren Or baitzetako Arma Olako jauregiko esku-hartzeari dagozkion obren eta ordainketen azken ziurtagiria emateko.

4.- 2013ko urriaren 18an, Sustapen Ministerioaren beste komunikazio bat jaso zen posta elektronikoko bidez, esanez Batzorde Mistoak 2013ko urriaren 15ean egindako LXV. bileran erabaki zela aurreikusitako urtesariak aldatzea, hitzarmeneko bigarren klausulan jasotzen denaren arabera; hain zuzen ere, urtez urte horrela banatuta geldituko dira:

– 2011. urtea	315.000,00 euro
– 2012. urtea	0,00 euro
– 2013. urtea	0,00 euro
– 2014. urtea	194.996,93 euro
– 2015. urtea	194.996,93 euro
– 2016. urtea	194.996,93 euro

Aldaketa hori ikusita, Aezkoako Batzarreak Nafarroako Gobernuari eskatu dio bere ekarpena egokitzeko, hurrengo urteetan 1,2 milioi euroko

guztizko inbertsioa egin ahal izan dadin. Zenbateko horren % 75 Espainiako Gobernuak Sustapen Ministeriotik helduko da.

Inbertsio hori bermatze aldera, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak, zeinaren Kultura Batzordeak bisita egin baitzuen 2012ko maiatzaren 18an Erregeren Or baitzetako Arma Olako jauregira, berretsi egiten du esku-hartze hori egitearen alde duen interesa, kulturaren esparru hutsetik harago doalako; hain zuzen ere, Nafarroako Pirinioetako eskualde horren garapen sozial eta ekonomikorako palanka bihurtzeraino.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du urtaldi bakoitzean konprometitutako aurrekontuaren % 25 jar dezan –100.000 euro inguru, 2014, 2015 eta 2016an–, Espainiako Gobernuak Sustapen Ministeriotik datorren gainerako % 75a bermatzeko.

Iruñean, 2013ko urriaren 29an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuari premiatzen da erlijioaren irakaskuntza ken dezan irakaskuntza ez-unibertsitarioetako curriculumetik.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuari premiatzen baita erlijioaren irakaskuntza ken dezan irakaskuntza ez-unibertsitarioetako curriculumetik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren arabera, erlijioa nahitaez eskaini beharreko ikasgaia da jada derrigorrezko hezkuntzan (Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza). Alderdi Popularrak, legea Senatuan eztabaidatzeko izapidetan, Haur Hezkuntzara eta Batxilergora ere zabaldu nahi du eskaintza hori, zuzenketa partzial baten bidez.

Hartara, Alderdi Popularrak bere egin ditu Apezpiku-konferentziak arlo horretan dituen eskakizunak.

Hezkuntza-erakundearen betebeharra da ikasle guztien oinarrizko eskubideak eta askatasunak bermatzea, bereizkeriarik gabe. Hezkuntza esparruan konbikzio filosofiko, moral eta erlijioso oro

errespetatu beharra dago. Hortaz, eskolan ezin da sartu, ez eta sartu behar ere, izaera konfesionaleko erlijio-prestakuntzarik. Sinesmenak eta konbizioak kasuan kasuko elizen edo talde filosofikoen esparrukoak dira, eta, azken finean, esparru pribatukoak, zeinaren pribatutasuna gure Konstituzioaren 16. artikulua ziurtatzen baitu, ezen xedatzen baitu inor ere ezin izan dela bere erlijioari edo sinesmenei buruz deklaratzera behartu. Horregatik guztiagatik, eskola ez da konfesio edo konbizio ezberdinek jarduteko toki bat, eta, horrenbestez, laikoa izan behar du, eta balio demokratiko eta unibertsaletan hezi.

Onartezina da LOMCEk herritartasunerako hezkuntza kentzea curriculumetik eta erlijio-doktrinamendua sustatzea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako curriculumetik ken dezan erlijioaren irakaskuntza eta, hortaz, curriculumetik eta eskola-orduetatik kanpo gera daitezen izaera konfesionaleko arloak edo ikasgaiak.

2. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du erlijioaren irakaskuntza Haur Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumetan nahitaez eskaini beharreko ikasgaia izan dadin Alderdi Popularrak egindako proposamena.

Iruñean, 2013ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Parlamentuak onetsitako zenbait foru lege bete ditzan.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Parlamentuak onetsitako zenbait foru lege bete ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2013ko urriaren 24ko eta 25eko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduratik heldu den ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuan onetsitako zenbait lege ez betetzeari buruzko jabeldurak agerian utzi zuen beharrezkoa dela Gobernuari oraindik ere behin eta berriro eskatzea jarreraz aldatzeko eta huts egiten ez jarraitzeko.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko 24/2013 Foru Legea bete dezan, etxebizitza hutsen erregistroa sortzeari dagokionez.

2. 8/2013 Foru Legea bete dezan; horren bidez, Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen zaie Nafarroan bizi diren pertsonei.

3. 17/2012 Foru Legea bete dezan eta ez ditzan itundu, horrenbestez, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe eta ikasgeletako irakaskuntzak, eta, hartara, kasuko ikastetxeekiko itunak alda ditzan, lege horrek xedatzen duen moduan.

4. 8/2010 Foru Legea bete dezan, nekazari-tzako eta abeltzaintzako ustiapenari lotutako produktuen salmenta erregelamendu bidezko garapenari dagokionez.

5. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea bete dezan, hedabideei buruz III. tituluan xedatutakoari dagokionez.

6. Seme-alaben jagoletza gurasoen bizikidetzan hausten den kasuetarako arautzen duen mar-txoaren 17ko 3/2011 Foru Legea bete dezan.

7. Toki Inbertsioen Planari buruzko 16/2008 Foru Legea bete dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Nafarroako Gobernuak jarraitzea gurutze erramuduna mantentzen Nafarroako Jauregiaren fatxadako Nafarroako armarrian, eta eskatzen du Nafarroan dauden ikur frankisten katalogo bat presta dadin, haiek kentze aldera.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baitu Nafarroako Gobernuak jarraitzea gurutze erramuduna mantentzen Nafarroako Jauregiaren fatxadako Nafarroako armarrian, eta eskatzen baitu Nafarroan dauden ikur frankisten katalogo bat presta dadin, haiek kentze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak behin baino gehiagotan adierazi izan du sinbolo frankistak kentzeko borondate irmoa duela. Hor dira, adibidez, 24/2003 Foru Legeko xedapen iragankor bakarra

eta Parlamentuak 2011ko martxoaren 25ean aho batez onetsitako mozioa.

Gobernua keta sostengua ematen dion alderdiak ere temati mantentzen dituzte sinbologia hori erakusten duten adibiderik adierazgarrienak: plaza baten izena –Rodezno Kontearen plaza; izan diren kolpista hiltzaileetan hiltzaileena–, edo Nafarroako Jauregiko armarriko gurutze erramuduna, San Ignazio etorbideko fatxadan. Biak ala biak dira legeei edo gehiengoaren babesa duten jarreremen egiteko borondate ezaren adibide, baldin eta 1936ko kolpe militarrekiko eta ondoren heldu zen diktadura frankistarekiko dauzkaten defentsa- eta solidaritate-sentimenduen aurka baldin badoaz.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Nafarroako Gobernua tematzea Nafarroako Jauregiko armarriko gurutze erramuduna, San Ignazio etorbideko fatxadako frontoikoa, mantentzen, eta mozio hau onesten denetik aitzina gehienez ere bi hilabeteko epean erretira dezan exijitzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Nafarroan oraindik dauden sinbolo frankisten katalogo bat egin dezan, horien kokalekua zehaztuta. Katalogoak hiru hilabeteko epean egon beharko du eginda eta Nafarroako Parlamentuaren esku.

3. Hurrengo hiru hilabeteetan, Gobernuak aipatu katalogoan jasotako sinbolo guztiak kenduko ditu.

Iruñean, 2013ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

F saila:
GALDERAK

Galdera, Europar Batasuneko txosten baten arabera osasunerako zentimoa legearen aurkakoa izan daitekeela dioen berriari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Europar Batasuneko txosten baten arabera osasunerako zentimoa legearen aurkakoa izan daitekeela dioen berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari Lourdes Goicoechea andreak Ekonomia eta Ogasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko abokatu nagusi Nils Wahl-ek ebatzi du, Katalunian helbidea duen garraio-enpresa batek abiarazitako auzi baten kariatara Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren eskakizunari erantzunez, "osasunerako zentimoak" –zenbait autonomia erkidegok erregaiei aplikatutako zerga, osasun-sistema finantzatzeko erabiltzen dena– urratu egiten duela Europako erkidegoaren legedia; izan ere, zerga berezien gaineko zuzentarauaren aurkakoa da, ez dituelako betetzen arauak zerga mota horietarako ezarritako bi betekizunak:

- Lehenik eta behin, "osasunerako zentimoak" ez du betetzen aurrekontuaz bestelako xede bera-

riazko bat egoteari buruzko betekizuna, hidrokarburoen gaineko zerga berezi harmonizatuaren helburu berbera duelako; alegia, hidrokarburoen kontsumoak eragindako gizarte-kostuak (osasun eta ingurumen arlokoak) murriztea. Gainera, ez da frogatu zergaren egitura taxutu zenik hidrokarburoen kontsumoaren despizgarri gisa edo hain kaltegarria ez den beste produktu baten kontsumoaren pizgarri gisa. Irizpenaren arabera, zergaren bidez bildutako dirua osasun eta ingurumen neurrietarako baliatze hutsa ez da aski frogatzeko aurrekontuaz bestelako xede bat bilatzen duela.

- Bigarrenik, "osasunerako zentimoak" ez du errespetatzen zerga berezien araubide orokorra edo BEZarena, sortzapena ezartzeari dagokionez. Zerga berezia eta BEZa ez bezala –lehendabiziko sortzen da produktua azken gordailu fiskaletik irteetan sortzen da, eta BEZa produkzio eta banaketa prozesuaren fase bakoitzean exiji daiteke–, hidrokarburoak kontsumitzaileari saltzen zaizkionean sortzen da "osasunerako zentimoa".

"Osasunerako zentimoa" –Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko abokatu nagusiak auzitan jarri du bere aplikazioa, gutxienez ere 2013ko urtarrilerarte artekoa– 13 autonomia erkidegotan dago ezarrita gaur egun, eta erregai-litro bakoitzeko 1,2 eta 4,8 euro bitartekoa da. Nafarroan, litro bakoitzeko 2,4 zentimokoa da.

Urtarrilaren 1etik aitzina, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ikertutako akatsak zuzentzea helburu, "osasunerako zentimoa" arteztu egin da, eta hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren barruan sartuta dute. Halatan, urtarriletik aitzina gutxienez, erkidegoaren legedia betetzen du, eta ez dago auzitan.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko abokatu nagusiaren irizpenak izan litzakeen eragina eta ondorioak kontuan hartuta –haren ebazpena ez da loteslea, baina Europar Batasuneko Justizia

Auzitegiak kasuen % 80an berretsi ohi du-, hauxe jakin nahi dut:

- Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak zer balorazio egiten du harako albisteari buruz, zeinaren arabera Europar Batasunaren aurretiazko

txosten batek aditzera ematen baitu "osasunerako zentimoa" legez kanpoko izan daitekeela?

Iruñean, 2013ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, bularreko minbiziaren baheketa-programaren xede den populazio-taldean adinagatik oraindik sartzen ez diren emakumeengan gaixotasun hori areagotzeari buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, bularreko minbiziaren baheketa-programaren xede den populazio-taldean adinagatik oraindik sartzen ez diren emakumeengan gaixotasun hori areagotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzuteko:

- Nafarroako Gobernuak, Osasun Departamentuaren bitartez, detektatu al du bularreko minbiziaren agerpena areagotzen ari dela bularreko minbiziaren behaketa-programaren xede den populazio-taldean adinagatik oraindik sarturik ez dauden emakumeengan?

Baiezkoan, hauxe jakin nahi dugu:

- Zer neurri hartuko dira bularreko minbiziaren detekzio goiztiarreko programako adin-tartea handitzeko?

Iruñean, 2013ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, San José zentroko igerilekuari buruzkoa.

XABIER LASA GORRAIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Xabier Lasa Gorraiz jaunak aurkeztutako galdera, San José zentroko igerilekuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Xabi Lasa Gorraizek,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuako Gizarte Politiketako kontseilari Alli jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan apiriletik aitzina, itxita dago, matxura bat dela-eta, San José Zentroko igerilekua, zeina Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa baita. Ezgaituen erabilera terapeutikorako eta jolaserako igerilekurik gabe daude, hortaz, pertsona horiek.

Galdera:

Gizarte Politiketako Departamentuak noiz konponduko du igerileku hori eta, noiz erabili ahal izanen da berriro?

Iruñean, 2013ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Xabi Lasa Gorraiz

Galdera, Gizarte Ongizateko Kontseiluak Nafarroako Kutxa Fundazioarako izendaturiko ordezkariari buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, Gizarte Ongizateko Kontseiluak Nafarroako Kutxa Fundazioarako izendaturiko ordezkariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleónek

gaurkotasan handiko ondoko galdera egin du, batzordean ahoz erantzuteko:

Orain dela gutxi jakin dugu Gizarte Ongizatearen Kontseiluak Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako ordezkaria izendatu duela. Harrigarria bada ere, Tuterako alkateak proposatutako pertsona izendatu du Gobernuak, eta ez Corminen ordezkatuta dauden ezgaitasun-sektoreko elkarteek proposatutakoa.

Hori guztia ikusita, ondokoa galdetzen dugu: Zergatik hautatu da Tuterako alkateak proposatutako pertsona, eta ez Corminek –ezgaitasunaren sektoreko Nafarroako elkarte guztien ordezkaria den aldetik– proposatutakoa?

Iruñean, 2013ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak Parlamentua eta hari dagokion lana eta erreforma instituzional baten beharra direla-eta duen iritziari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak Parlamentua eta hari dagokion lana eta erreforma instituzional baten beharra direla-eta duen iritziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea Zubelzu andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Zer iritzi duzu zuk Parlamentuari eta hark duen eginkizunari buruz? Zer ari zara proposatzen “erakunde-erreforma” egin beharraz hitz egiten duzunean?

Iruñean, 2013ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, gizarte entitateei zuzendutako diru-laguntzen deialdiei buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, gizarte entitateei zuzendutako diru-laguntzen deialdiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako kontseilariak kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Iragan ekainaren 26an, Nafarroako Parlamentuak aldatu egin zuen Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzeko 7/2009 Foru Legea. Aldaketa horrek ondoko artikulua jaso zuen:

“Hiru hilabeteko epean, urteko errenta kanpaina bukatu eta gero, gizarte entitateentzako diru-laguntzetarako deialdiak onetsiko dira. Aipatu deialdiak urtea bukatu baino lehen ebatziko dira, hurrengo urteko urtariletik aurrera bete ahal izan daitezen”.

Errenta kanpaina bukatu zenetik hiru hilabete horiek igaro direnez eta deialdiak egin ez direnez, hauxe jakin nahi dut:

• Nafarroako Gobernuak noiz egingen ditu talde bakoitzerako deialdiak?

• Zeri zor zaio deialdia egiteko atzerapena?

Iruñean, 2013ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza

Galdera, Ega ibaian hilik agerturiko karramarroei buruzkoa.

M.^a DEL CARMEN OCHOA CANELA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a del Carmen Ochoa Canela andreak aurkeztutako galdera, Ega ibaian hilik agerturiko karramarroei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Mari Carmen Ochoa Canelak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Ega ibaian hil diren karramarroei buruz, idatziz erantzuteko:

Orain dela gutxi jakin da Ega ibaian karramarroak hilik agertu direla. Bertako arrantzaleak

ezkor ageri dira, ez soilik aurtengo arrantza eskas eta harrigarri urriarengatik, ezpada datorren denboraldiarengatik ere; izan ere, orain ari ziren arrautzak erruten. Aipagarria da, orobat, Nafarroako Gobernuak aurtan ez duela arrantza-kuotarik ezarri, plan bat taxutu zelako karramarro autoktonoaren berrezarpenerako. Karramarro autoktonoa hil egiten da karramarro seinaleak transmititzen zuen bakterio batekin kontaktuan sartzean. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

- Zer arrazoiarengatik hil dira milaka karramarro Ega ibaian?

- Nola funtzionatu du karramarro autoktonoa leheneratze aldera Nafarroako Gobernuak taxututako planak?

- Ikertu al zen zergatik denboraldi honetan hain arrantza gutxi egon den eremu horretan bertan karramarroak hilik agertu diren, aurreko kanpainetan ugaria izanik ere?

Iruñean, 2013ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: María Carmen Ochoa Canela

Galdera, 2013rako defizit-helburuari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, 2013rako defizit-helburuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2013 honetarako defizit-helburuari dagokionez, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

- Gauzatu al da Nafarroaren eta Estatuaren arteko aldebiko akordioa, 2013 honetarako defizit-helburuari buruzkoa?

- Kasua bada, noiz sinatuko da akordioa?

- Kasua bada, sinatutako akordioa igortzea eskatzen dut.

Iruñean, 2013ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, diru-sarreraren betetze-egoerari eta abenduaren 31rako ekitaldi-itxierako aurreikuspenari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, diru-sarreraren betetze-egoerari eta abenduaren 31rako ekitaldi-itxierako aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Parlamentari honek jakin nahi du zein den, Nafarroako Gobernuak galdera hau jasotzen duen egunean, diru-sarreraren betetze-egoera xehakatu eta abenduaren 31ko ekitaldi-itxierarako aurreikuspena.

Iruñean, 2013ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, traumatologiako itxaronzerrendari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, traumatologiako itxaronzerrendari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezazkion:

Iragan irailaren 12an, itxaronzerrenden egoera aztertu genuen Osasun Batzordean. Bereziki adierazgarriak dira Traumatologia bezalako zenbait espezialitatetako datuak.

Honi buruz:

1. Zer neurri zehatz ari zarete hartzen Traumatologiako itxaronzerrenda arintzeko? Zein epetan?

2. San Juan de Dios Ospitalean ebakuntzak bertan behera utzi zirenetik, nola ari zaio heltzen Itxaronaldien bermeei buruzko Foru Legeari?

3. Zenbat operazio-gela erabilgarri ditu une honetan O-NOZek? Operazio-gela gehiago irekitzerik aurreikusten al da? Hala baldin bada, noiz irekiko dira?

4. Aintzat hartu al da San Juan de Dios Ospitaleko operazio-gelak traumatologiako ebakuntzetarako berriro erabiltzeko aukera?

Iruñean, 2013ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, entitate publikoetako izaera pertsonaleko fitxategiei buruzkoa.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, entitate publikoetako izaera pertsonaleko fitxategiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, entitate publikoetako izaera pertsonaleko fitxategiei buruzko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Erregistroko PES-142 zenbakiko parlamentu-ekimenari dagokionez eta Nafarroako Gobernuak 2013ko urriaren 25ean galdera hori dela-eta igorritako erantzunari dagokionez, ondokoei buruzko azalpenak eskatzen ditut:

Ea Nafarroako Gobernuak zergatik aukeratu duen ez baliatzea eskumen autonomikoa, erkide-

goko entitate publikoek sortu edo kudeatutako izaera pertsonaleko fitxategien gainekoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 41. eta 42. artikuluek aitortzen diotena.

Nafarroako Gobernuak noiz hartu zuen datuak babesteko bere agentzia ez sortzeko erabakia, nork hartu zuen erabaki hori eta zein den erabakiaren edukia.

Ea Nafarroako Gobernuak planteatu duen, planteatutako duen edo egoki ikusten duen Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa premiatzea kontrol motaren bat eta zerrendaren bat presta dezan entitate publikoek Nafarroan sortutako edo kudeatutako izaera pertsonaleko fitxategiei buruz, ikusita azken urteotan zenbat ugaldu diren.

Iruñean, 2013ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, “osasunerako zentimoa” aplikatzearen ondorioz Foru Ogasunak lortutako diru-bilketari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, “osasunerako zentimoa” aplikatzearen ondorioz Foru Ogasunak lortutako diru-bilketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondarearen gaineko “osasune-

rako zentimoari” buruzko ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Foru Ogasunak, galdera honi erantzun zaion egunera arte, “osasunerako zentimoa” dela-eta bildutako diru-kantitatea.

Ondoko xehetasunak jakin nahi ditut:

– Zerga hori aplikatzen hasi zen eguna eta, kasua bada, aplikatzen bukatu den eguna.

– 2012ko ekitaldiko diru-bilketaren zenbatekoa, hilez hilekoa nahiz orotara bildutakoa.

– 2013an iragan den denboran bildutako zenbatekoa, hilez hilekoa nahiz urte osokoa.

Orobat jakin nahi dut ea zer balorazio egiten den Europako Justizia Auzitegiko fiskalak berriki adierazitako jarrera dela-eta, bai eta jarrera hori dela-eta Nafarroan zer neurri hartu diren edo, aurreikuspenen arabera, har daitezkeen ere.

Iruñean, 2013ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lantaldea, aztertzeoa zein den gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak ere, gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera.

TXOSTENA ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita gizarteratze errentaren garapena eta egoera zein den aztertzeoa bai eta, gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera, parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak ere ikertzeko lantaldeak igorritako txostena, hona ERABAKIA:

1. Txosten hori jasotzat ematea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Erabaki hau Gizarte Politiketako Batzordeko Lehendakariari jakinaraztea.

Iruñean, 2013ko urriaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lantaldearen txostena

SARRERA

Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Lege indarduna aldatzeko bi foru lege proposamen aurkeztu dira. Lehenbizikoa Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Ezkerreko Ezkerra parlamentu-taldeek eta foru parlamentari Leuzá García eta Ayerdi Olaizola jaunek aurkeztu dute eta bigarrena Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen ekimena izan da. Ezberdinak dituzte edukia, Gizarteratze Errenta (GE) erreformatzeko prozesuari buruzko ikuspegia eta prozesu hori gauzatzeko era, eta horregatik sortu zen behinola lantalde hau.

Hauze izan da lantaldearen helburua: Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera, Gizarteratze Errentaren garapena eta egoera eta parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak aztertzea.

Zenbait bilkura egin dira eta horietako batzuetara gonbidatu da Nafarroako Gobernuako Gizarte Politiketako kontseilaria; batik bat Gizarteratze Errentaren egungo egoerari buruzko informazioa eta dokumentazioa ekarri ditu. Haren ekarpen nagusia izan da datuak eskaintzea hartzaileez, kostuez, kontuan hartu beharreko balizko aldaketek, kostuen gaineko hipotesiek, taldeek planteatutakoak gogoeta zabalagoen arabera, hartzaileen kopuruari eta abarrekoei dagokienez.

Haren parte hartzeari esker, gainera, lantaldeko kideek txosten honen eranskinean dagoen dokumentazio eguneratua eskuratu dute.

Txosten honetan labur-labur jaso nahi izan dira lantaldean azaldu diren funtsezko ideiak.

FORU LEGE INDARDUNA ETA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DITUZTEN FORU LEGE PROPOSAMENAK

Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Lege indardunari eta goian aipatutako proposamenei buruzko konparazio taula bikain eta osoa aurkeztu da (I. eranskina).

Dokumentu hori funtsezkoa da konparazio bidez ezagutu ahal izateko Oinarrizko Errentaren nondik norakoak eta hura aztertzeoa ikuspuntuak:

- Lege garapena eta kontzeptua.
- Unitate hartzailearen eta onuradunen azterketa.

- Oinarrizko Errentaren epeak eta iraupena.
- Zenbatekoak.
- Zenbatekoen aldaketaren tratamendua.
- Eskuratzeko baldintzen azterketa.
- Betebeharrak.
- Errenta eskatzeko espedienteen ebazpena.
- Prestaziorako eskubidearen azkentzea.
- Zehapen araubidearen azterketa.

Lantaldeko kide bakoitzak bere ondorioak atera ahal izan ditu, une honetan dauden lege proposamenak alderatu eta gero.

Bidezkoa da lan horren egokitasuna txalotzea eta Leuza García jaunari eskerrak ematea, adeitasunez lantaldearen eskura jarri baitu.

GIZARTE POLITIKETAKO KONTSEILARIAREN EKARPENAK

Gizarte Politiketako kontseilariak lantaldeko kideei bere kasa adierazi zien lantaldean parte hartu nahi zuela, iritziak azaldu eta erkatzeko eta galderei zuzenean erantzun ahal izateko. Oso interesgarria gertatu da, bestalde, lantaldeko kideek eskatu ahala berak aurkeztu duen dokumentazioa, Gizarteratze Errentaren eta etorkizunean onets litekeenaren zenbait alderdiri buruzkoa.

Hiru dokumentu ekarri ditu. Agiri horiek II., III. eta IV. eranskinetan jaso dira, eta gai hauek jorrazten dituzte:

1.- Gizarteratze Errenta: GEaren bilakaeraren zenbatespena urtez urte. II. eranskina.

2.- Gizarteratze Errenta: pertsonak garatzeko eta gizarteratzeko arreta. III. eranskina.

Taulak eta grafikoak:

- Langabeak eta Oinarrizko Errentaren (OE) edo Gizarteratze Errentaren hartzaileak
- Egiturazkoak versus abagunekoak?
- Urtarokotasuna.
- Datu ekonomikoak.
- Ezesteko arrazoiak 2012an eta 2013an.
- Hartzaileen profila (konparazio taula, gaur egungo egoera ekonomikoaren aurretik eta ondoren).

Sexuaren arabera; adingabeen presentzia; familia unitateen osaera; jatorriaren arabera; banaketa; profil nagusiak; autoktonoak, etorkinak, jatorri-taldearen arabera; profil nagusien erkaketa.

3.- Gizarteratze Errentaren inbertsio soziala. IV. eranskina.

- a) Egoera.
- b) Hartzaileen profilak.
- c) Zenbatekoen berrikuspena.
- d) Gizarteratze Errentak. Gutxienekoak eta gehienekoak.

Hemen xehetasunik ematen ez badugu ere, bilkuretan zehar kontseilariak dokumentu horiek azaldu ditu, eta eztabaida, galdera eta argibide saio luzeak egin dira. Horregatik, dokumentu horiek txosten honi erantsi zaizkio.

BILKURETAN EZTABAIDATU DIREN GAIEN LABURPENA

Hona hemen noiz egin diren bilkurak:

Ekainaren 20an hasi ziren, eta uda ondotik irailaren 23an eta 30ean eta urriaren 7an, 21ean eta 23an jarraitu zuten. Bilkuretan hainbat iritzi eta ohar jarri dira mahai gainean. Aipatzekoak dira honako hauek:

“Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko Mauleón jaunak hau proposatu du:

Adostasunaren bila bere taldea prest legoke Oinarrizko Errentaren hasierako zenbatekoetara itzultzeko aukera aztertzeko, betiere honako aldaketa hauek eginen balira:

- Prestazioaren bi urteko epea amaitutakoan, lehengo legeko baldintzen arabera beharrak irauten badu, prestaziorako eskubidea izatea.

- Egoera irregularrean daudenek prestaziorako eskubidea izatea, gainerako baldintzak betetzen badituzte.

- Hiru hilabete baino gehiago irauten ez duten absentziak justifikatuz gero, prestazioa kobratzeko eskubidea izatea, eta 24 hilabetez Nafarroan bizi izanaren baldintzari eustea, lehengo legeko 12 hilabeteen orde.

Horrez gainera, haren iritzi:

- Aztertu beharra dago nola lehenetsiko den gizarte enplegu babestua prestazioa kobratzen denbora gehien daramaten pertsonentzat, halakoa laneratzen eta gizarteratzen saiatzeko, pertsona orok noizbait lana izan dezan saiatuz.

- Formula egokiak bilatzea kolokako lanpostuetan Oinarrizko Errenta baino gutxiago kobratzen duten pertsonen pizgarriak emateko modu erregularrean lan egin dezaten. Alegia, lan egin eta prestazioa kobratzen duenak diru sarrera handiagoak

lor ditzan prestazioa kobratu besterik egiten ez duenak baino.

- Gizarteratze Errentaren zenbatekoaz enpresak, udalak eta GKEak finantzatzen dituen programaren bitartez kontratatutako pertsonak beti errenta hori baino gehiago kobra dezatela.

KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE GOGOETA BATZUK

Bilkuretan zehar funtsezko gai batzuk jorratu dira eta, jasorik gera daitezen, horien azalpen orokorra eginen dugu.

Hauek dira:

- Familiarekin bizi diren adingabeen adin muga 12 urtetik 16 urtera igotzeko aukera. Horrek 240 bat familiari eraginen lieke eta 2,1 milioi euro inguruko kostua izanen luke, Gizarte Politiketako kontseilariaren kalkuluen arabera.

- Halaber, 24 hilabetez Nafarroan bizi izatearen baldintza eta gehienez 3 hilabeteko absentzia justifikatuak ezartzeko aukera aztertzea.

- Nafarroan bizitzen 24 hilabete daramatzaten eta ezustean gertatutako egoera irregularrean dauden hartzaileen egoera aintzat hartzea. Horrek 150 bat hartzaileri eraginen lieke eta 1,2 milioi euroko kostua izanen luke.

- Gizarteratze Errenta agortzen duten hartzaileek lehenbiziko izan dezatela gizarte enplegu babestuan. Horretarako indartu egin behar da enplegu mota hori, bai eta enplegu zentro bereziak ere.

- Egungo Gizarteratze Errentaren aurreko sistemara itzultzea. Horrek 15,6 milioi euroko gainkostua izanen luke.

- Gizarteratze Errentaren aurrekontuan 2013rako zenbatetsitako hornidura 39 milioi eurokoa da.

PROPOSATUTAKO EKIMENEN EGOERA JURIDIKOA

Indarrean dirau Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legeak, eta lege horixe aldatu, hobetu edo ordeztu nahi da.

Horretarako bi lege proposamen aurkeztu dira: lehenbizikoa Bildu Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta foru parlamentari Leuza García eta Ayerdi Olaizola jaunek aurkeztu dute, eta bigarrena Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen ekimena izan da.

Proposamen horiei zuzenketak aurkezteko epea amaitutakoan, zuzenketarik aurkeztu ez denez, erregelamenduaren arabera zuzenketak egiteko gelditzen den aukera bakarria Parlatuaren Osoko Bilkuran in voce aurkeztea da, betiere foru parlamentarien gehiengo osoak izenpetzen baditu.

ONDORIOA

Aurreko puntuan azaldutako egoera juridikoa egiaztatzeaz gainera, lantaldeko kide guztiak beharrezkotzat jo dute Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Lege indarduna aldatzea gaurko egoera ekonomikora egokitzeko.

Badira proposamenak funtsezko alderdiei buruz bat ez datozenak, esate baterako iraupen denborari, zenbatekoari, salbuespenei edo sarre-ra-baldintzei buruz.

Horietako batzuen inguruan talde guztiak ados jar litezke. Beste batzuk, zama politiko eta ideologiko handiagokoak, adosten zailagoak izanen dira.

Azken buruan lantalde honi eduki juridikoa emateko bide bakarria dago: aurkeztu diren foru lege proposamenak erregelamenduaren arabera izapidetzen jarraitzea, Nafarroako Parlatuaren Osoko Bilkuran haiek eztabaidatuz eta bozkatzuz, eta Osoko Bilkuran in voce zuzenketak aurkeztu ahal izatea, betiere Legebiltzarreko kideen gehiengo osoak izenpetzen baditu.